

Euspot lehiaketa apirilaren 16an egingo da, Aretxabaletan

2013/04/13

Iaz sortu zen Euspot euskarazko spot lehiaketa, Mondragon Unibertsitateak, Aretxabaletako Udalak eta Arteman Komunikazioak bultzatuta, bi helbururekin: batetik hutsune bat betetzeko ikus-entzunezkoen eta euskararen sorkuntzaren arloan eta, bestetik, euskararen erabilera bultzatzeko esparru guztietan. Bigarren edizio honen gaia da: **sare sozialak eta euskara**.

Aurten **22 spot jaso dira**, Euskal Herriko toki askotatik. Nahi duenak parte hartu publikoaren sarian, klik egin lezake Eman zure botoa orrian, eta bertan botoa eman, hor daude-eta jasotako bideoak.

Sariak

Aurten lau sari banatuko ditu Euspot lehiaketak:

- Spot onena: 1.000€
- MUko spot onena: 500€
- Publikoaren saria: 500€
- Gazteen saria: 250€ (18 urtetik beherakoentzat)

